

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

1382

77/2025 DEKRETUA, martxoaren 25ekoa, Joko eta Ikuskizunen zuzendaria kargutik kentzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Segurtasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko martxoaren 25ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Aitor Mikel Uriarte Unzalu jauna Joko eta Ikuskizunen zuzendari kargutik kentzea beste kargu bat beteko baitu euskal sektore publikoan, egindako lanagatik eskerrak ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2025eko martxoaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko martxoaren 25ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.